



Fundación Basque Team Fundazioa

ERREPORTAJE SAIO BATEN IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOA KONTRATATZEKO BALDINTZA-PLEGUA. TELEBISTAN EMANGO DA ETA TOKIO 2020KO JOKO OLINPIKOETAN ETA PARALINPIKOETAN LEHIATU NAHI DUTEN FUNDACIÓN EUSKADI KIROLA FUNDAZIOKO KIROLARIEN JARDUEREN BERRI EMAN ETA ZABALTZEA DA EDUKIA, BAITA GAI HORRI LOTUTAKO PUBLIZITATE-KANPAINARAKO TELEBISTA-SPOTA ZABALTZEA ERE.

(03 / 2019 ESPEDIENTEA)

1.- AURREKARIAK

Fundación Euskadi Kirola Fundazioaren xedea da batetik, goi mailako euskal kirola sustatzea, nazioarteko goi mailako lehiaketetan eta bereziki goi kirol ekitaldietan ordezkari eta esku-hartzea oparoa izan dadin; eta bestetik, aipatu lehiaketetan euskal kirolariek goi mailako emaitzak lortzea. Xede hori garatzeko alderdi estrategikoa da fundazioaren eta haren kirolarien irudi korporatibo egokia sortu eta zabaltzea.

Fundación Euskadi Kirola Fundazioak bere proiektuaren eta markaren berri ematen jarraitu nahi du, eta horretarako, ikus-entzunezko erreportaje saio bat sortu nahi du. Hedabide horren bidez BAT-BASQUETEAM-en sartuta dauden kirolarien jarduerak zabaldu eta jakinaraziko dira. Bereziki, erreportaje saioak 2020ko udan Tokion egingo diren Joko Olinpikoetan eta Paralinpikoetan parte hartzeko aukera duten kirolarien jarraipena egingo du. Telebista saioa sortzeko Fundazioak ikus-entzunezkoen produkzioan aditua den enpresa baten laguntza behar du.

Saioaz gain, helburu eta oinari berarekin Euskal Telebistan egingo den publizitate-kanpainarako spot bat sortu behar du Fundazioak: Tokio 2020ko Joko Olinpikoak eta Paralinpikoak.

Azken finean, ikus-entzunezkoen produkzioarako zerbitzu-kontratua eskaintzea da, eta helburua telebistan emateko erreportaje saioa edo dokumentala eta spot bat ekoiztea, betiere Fundación Basque Team Fundazioari, kirolariei eta markari dagozkienak, plegu honetan adierazitakoekin bat.

2.- KONTRATAZIO-ORGANOA



Fundación Basque Team Fundazioa

Kontratazio-organoa, lizitazioaren aurrekontua aintzat hartuta, Patronatuko idazkariak eta Fundazioko koordinatzaileak osatuko dute. Biek ala biek batera edo era mankomunatuan jokatuko dute.

3.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratu hau pribatua da, eta jurisdikzio-ordena zibilak eskumena du betearaztean sor daitezkeen gatazkak ebazteko.

Dena dela, kontratu hau azaroaren 8ko Sektore Publikoaren Kontratuen 9/2017 Legearen (SPKL) III. Liburuko I. Tituluak arautuko du, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, fundazio publikoa den aldetik, duen izaera juridikoa dela medio, eta egiten dituen kontratuak direla medio. Halaber, lege honen ondoreetarako eta lege horren 3.1.e) eta 3.3.b) artikulua aplikatuz, sektore publikoko fundazioa den aldetik, adjudikatzeko ahalmena du.

Baldintzen Plegu honek kontratu-izaera du eta kontratua gauzatzeko baldintza zehatzak ditu.

4.- KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratu honen adjudikaziorako aukera dute jarduteko gaitasuna duten eta kontratatzeke debekurik ez duten pertsona naturalek edo juridikoek, Espainiakoek edo atzerritarrek. SPKLren 71.1 artikuluan zerrendatuta daude debekuok. Halaber, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo profesionala izan behar dute. Gainera, eskatzen den gaikuntza enpresariala edo profesionala izan behar dute kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko. Ondore horietarako, kontuan hartuko dira SPKLren I. Liburuko II. Tituluaren II. Kapituluaren jasota dauden arauak.

5.- KONTRATUAREN XEDEA

Fundación Basque Team Fundazioak ikus-entzunezko produkzio-zerbitzuak kontratatu behar ditu, Fundazioaren bekak jasotzen dituzten goi mailako euskal kirolarien jarduerak erakusteko saio bat egite aldera Tokio 2020ko Joko Olimpikoei eta Paralinpikoei begira, eta ekitaldi hori oinarri duen telebista-spot bat egite aldera.



Fundación Basque Team Fundazioa

Horren harira, Eusko Jaurlaritzaren eta Fundación Basque Team Fundazioaren konpromisoak, komunikazioari eta emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, eskatzen du, kontratuaren xede diren prestazioei dagokienez, komunikazioa genero-ikuspegitik abiatuta egitea, hau da, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista baten bidez, baita ikuskera inklusibo eta zabal batekin ere, desgaitasun funtzionala duten kirolarien berezitasunak ere kontuan hartuta.

6.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA XEHETASUNA: KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZAK

Kontratuaren adjudikazioduna den pertsona fisikoak edo juridikoak ikus-entzunezko 10 erreportaje edo saio produzitu behar ditu, telebistan emateko modukoak eta telebistarako spot bat ere bai, jarraian deskribatzen diren edukia eta ezaugarriak dituela, eta Fundación Basque Team Fundazioak konpromisoa hartzen du prezio zehatza ordaintzeko, gero adieraziko dena, saio horien eta publizitate-iragarki horren truke.

Kontratu honen xede diren ikus-entzunezko saio horien ezaugarri teknikoak honako hauek dira:

- Iraupena: 10-15 minutu saio bakoitzeko.
- Saio-kopurua: 10 (HAMAR).
- Era gehigarrian, produzitutako saio bakoitzeko, enpresa adjudikaziodunak bi mikroespazio editatu eta aurkeztu beharko ditu, bakoitzak 1:30 minutu dirauela, saioa jakitera emateko erabiliko direnak, "highlights" edo saioko unerik esanguratsuenen modukoak, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Mikroespazio horiek kirolariek osatutako piezak dira, eta behar bezala estaliko dira ad hoc irudiekin, musikaz lagunduta, lokuziorik gabe.
- Xedea: Fundación Basque Team Fundazioko kirolarien jarduerak ezagutaraztea, Tokio 2020ko Joko Olinpikoei eta Paralinpikoei begira, baita "Basque Team" marka ere.
- Balio erantsiak: Goi mailako euskal kirola. Konpromisoa, esfortzua, hobetzeko grina, lortutakoarekin harro egotea, eliteko kirolarien talde batekoa izatea, Euskadi ordezkatzeari nazioarteko mailan.
- Kapitulu bakoitzaren bertsio bi: bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.
- Protagonistak: Basque Teameko kirolariak.
- Kontratuaren prezioan sartutako gastuak:
 - Taldea teknikoa: Zuzendaria, idazlaria, produkzioa, errealizazioa.
 - Taldea artistikoa: Gidoiak, off ahotsa...



Fundación Basque Team Fundazioa

- Behar teknikoak: Bideo post produkzioa, ENG-grabazioa, audio post produkzioa, grafismoa
- Dietak, bidaiak eta beste gastu batzuk (salbuetsita daude BATeko kirolariei jarraipena eta grabazioa egitea nazioarteko lehiaketetan eta jarraipena eta grabazioa egitea prentsaurrekoetan, lehiaketetan eta Basque Teamek euskal erkidegoan egiten dituen beste ekitaldi batzuetan).
- Saioa: 'BAT To Tokio'
Kirolari hauek izango dira saioko kapituluaren protagonista:
 - **Surfa:** Aritz Aranburu, Andy Criere, Nadia Erostarbe, Leticia Canales, Garazi Sanchez...
 - **Piragüismoa:** Maialen Chourraut, Ander Elosegi, Iñigo Peña eta Begoña Lazkano
 - **Arraunketa olinpiarra:** Virginia Díaz, Jon Carazo, Ondiz Lekubarri, Jorge Pineda
 - **Atletismoa 1** (jaurtitzaleak eta jauzilariak): Lois Maikel Martinez, Carlos Tobalina, Odei Jainaga, Arantza Moreno, Maialen Axpe
 - **Atletismoa 2** (korrikalariak): Elena Loyo, Iraitz Arrospide, Trihas Gebre, Ixaso Munguira, Tania Castillo
 - **Skate:** Kirol olinpiar berria + Ian Ponciano
 - **Errepideko eta pistako ziklismoa:** Ane Santesteban, Lourdes Oyarbide, Eider Merino, Tania Calvo, Ana Usabiaga, Illart Zuazubiskar, Amador Granados
 - **Igeriketa / Triatloia:** Iñigo Llopis, Nahia Zudaire, Rakel Mateo
 - **Gurpil-aulkiko saskibaloia:** Agurtzane Eguiluz, Beatriz Zudaire, Asier García
 - **Golfa:** Jon Rahm edo **Tokio 2020ri buruzko saio generikoa**
- Telebistako spota
 - Spotaren kasuan, irudiak saiotik har daitezke (BAT To Rio estiloari jarraituz) edo ideia askea aurkez daiteke, oinarri dituen Basque Teameko kirolariak eta Tokio 2020ko Joko Olinpikoak eta Paralinpikoak, baina saioarekiko independentea dena. Dena dela, eutsi egingo zaie leloei edo ideiarri: Tod@s a Tokio, BAT To Tokio, "Kirolak Erotzen Gaitu", "Locura por el deporte"...
 - Spota euskaraz zein gaztelaniaz produzituko da: ETB1erako eta ETB2rako bertsioa.

***Hala saioan nola spotean, saioaren edukiak eta estiloa edo estetika Basque Teameko komunikazio sailarekin adostuko dira.**



Fundación Basque Team Fundazioa

4 – BETEARAZTEKO EPEA

Enpresa adjudikaziodunak 2020ko MARTXOAREN 1ean aurkeztuko du iragarki-spota eta 2020ko APIRILAREN 1A baino lehen dokumental sortaren lehen kapitulua.

Gainerako hurrengo 9 saioak (BEDERATZI) (2. saiotik 10. saiora) aste birik behin aurkeztuko dira 2020ko APIRILETIK aurrera. Edonola ere, aurkezteko epeak Fundazioko komunikazio sailarekin adostu beharko dira.

5.- KONTRATUA BETEARAZTEKO BALDINTZA GEHIGARRIAK

Kontratua betetzen den bitartean, Fundación Basque Team Fundazioak prestazioa zuzena dela eta plegu hauetara nahiz enpresa adjudikaziodunaren eskaintzara egokitzen dela egiaztatze eskubidea dauka.

Fundazioak baimena eman ahal du kontratu honetan, pleguan eta onartutako eskaintzan zehazten diren lanak garatzeko baldintzak aldatzeko. Ustekabeko inguruabarrik izanez gero, jakinarazi egingo da, eta, hala badagokio, Fundazioak onartu beharko du.

5.1.- Kontratazioaren beste zehaztapen batzuk

- Formatuei eta bateragarritasunari dagokienez, hedabideetan edo web euskarri bateragarrietan egiten diren aldaketen berri izango du enpresak, material horiek esportatzeko komunikazioan aurrera egin eta berritze aldera.
- Grabatutako materiala biltegitratzeko tratatuko da eta aldiro emango zaio Fundación Basque Team Fundazioari. Dena dela, produkzio-etxeak irudien baliabide-artxibategia izan behar du eguneroko informazioak osatzeko; eta komunikazio arduradunak eskuragarri izango du zerbitzari bat, Fundazioak eskatutako ikus-entzunezko piezak edo azken produktuak izango dituenak.
- Enpresa adjudikaziodunak bermatu behar du datu pertsonalak babesteko segurtasunari buruz indarrean dagoen legeria beteko dela, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, administrazio kontratugileak lagatuko datuak erabiltzean eta tratatzean.



Fundación Basque Team Fundazioa

5.2.- Zerbitzuaren baldintzak

- Grabazio guztiak HD 1080p-n aurkeztuko dira eta .mov edo mp4 formatuan, H264 codec dutela, eta irudiaren abiadura, gutxienez, 12 mbps-kp-koa.
- Derrigorrezkoa da aplikatzea, besteak beste, hurrengo pautak informazioaren tratamenduan:
 - Hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta inklusiboa egitea eta irudiak kontratua betearaztean erabiliko diren agiri eta material guztietan.
 - Sexuka bereizitako datuak aurkeztea kirolariei buruzko informazioetan.
 - Lan guztiak (grabazioa, edizioa, errotulazioa eta lokuzioa, behar izanez gero) elebidunak izango dira, euskaraz eta gaztelaniaz. Bi pieza aurkeztuko dira beti, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, eta enpresa adjudikaziodunaren ardurapekoak dira egin litezkeen itzulpenen eta azpigituluen kostuak.
 - Fundación Basque Team Fundazioarenak dira enpresa adjudikaziodunak aurkeztuko duen ikus-entzunezko material guztiaren eskubideak.
 - Saioko kapituluen eta spotaren gidioa eta edukiak Fundación Basque Team Fundazioko komunikazio sailak adostuko ditu enpresa adjudikaziodunarekin.

6.- LIZITAZIO-AURREKONTUA

Lizitazio honen aurrekontua eta kontratuaren prezioa, gehienez, EHUN ETA HOGEI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZORTZI EUROkoa da (120.758,00.- €), honelaxe banakatuta: 99.800,00 euroko zerga-oinarria, gehi BEZaren beste 20.958,00 euro.

Kopuru hori gehieneko aurrekontua da, eta eskaintzaren batek zenbateko hori gaindituz gero, kanpoan geratuko da.

6.- KONTRATUAN ATZERA EGITEKO AUKERA



Fundación Basque Team Fundazioa

Fundación Basque Team Fundazioak kontratuan uneoro atzera egiteko eskubidea du, eta ez du hitzemandako kopurua ordaindu beharrik izango, baldin eta ados ez badago eskatutako zerbitzuarekin, zerbitzu hori adjudikatzeko arrazoiekin bat egin ez bada.

7.- KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA ERA

Kontratu hau adjudikatzeko, Fundación Basque Team Fundazioak prozedura ireki erraztua abiaraziko du, azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 159. artikuluan arautua.

8.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazio honetan parte hartzeko, proposamena egiten duenak eskaintza aurkeztuko du www.contracion.euskadi.eus lizitazio elektronikotik, **2019ko urriaren 31ko 15:00 orduak baino lehen**, gutunzazal elektronikoko bitan. Ez da paperean dagoen eskaintzarik onartuko.

9.- PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA

Eskaintzak aurkezten dituzten enpresek honako alderdi hauek sartu behar dituzte:

A.- 1. karpeta – Proposamen administratiboa eta balio-iritziaren mendeandauden irizpideak

Proposamenak honako agiri hauek izan ditu:

1. Jarduteko gaitasuna honako hauekin egiaztatuko da:

A. Jarduteko gaitasuna duela eta kontratatzeko debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 71. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora, II. Eranskina).

B. Eskaintzak aurkezteko azken datan, Sektore Publikoko Lizitatuzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, edo dagokion autonomi

erkidegoko Erregistro Ofizialean egongo dira inskribatuta lizitzaile guztiak.

Aipatu inskripzioa egiaztatzeko, inskripzio eskabidea egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Azken kasu horretan, adjudikaziodun izanez gero, bermea jartzeko errekerimendua jasotzean, eta emandako epearen barruan, honakoak aurkeztu behar ditu: Eraketa Eskritura, eskaintza sinatzen duen pertsonaren notario-ahalordea, eskaintza sinatzen duen pertsonaren NAN, enpresaren edo erakundearen IFK, eta Gizarte Segurantzarekikoak eta egoitza sozialari dagokion Ogasunarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

- C. Lizitaziora aurkeztu nahi duten pertsona juridiko guztiek hurrengo agiriak erantsi behar dituzte titular erreala identifikatzeko (kapitalak zuritzea prebenitzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 3. eta 4. art.):

Pertsona fisikoaren edo fisikoen identifikazioa, hain zuzen ere, kapitalaren % 25etik gorako portzentajea, zuzenean edo zeharka, izan edo kontrolatzen dutenak edo pertsona juridiko baten boto-eskubideak dituzten edo kontrolatzen dituztenak, edo beste bitarteko batzuen bidez pertsona juridikoaren kudeaketa, zuzenean edo zeharka, kontrolatzen dutenak. Salbuetsita daude EBko edo hirugarren herrialde baliokideetako merkatu arautu batean kotizatzen duten sozietateak (III. Eranskina).

- D. Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta ez badago, lizitzaileari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiak tarteko, ordezkaritza egiaztatzeko agiriak: Ordezkatze ahalordea duen pertsonak ahalordeen kopia aurkeztu behar du, notario edo administrazio bidez, baita Nortasun Agiriaren kopia ere edo, hala badagokio, horren ordezkoa den agiriaren kopia.

2. Espainiako enpresaburuak

Nortasun juridikoa duten enpresak

Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta ez badago, lizitzaileari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiak tarteko, pertsona juridikoak diren enpresaburuaren jarduteko gaitasuna eratze- eta aldatze-eskrituraren bidez egiaztatuko da, Merkataritza erregistroan inskribatuak, baldintza hori aplikatuko zaion merkataritza-legeak hala eskatuta. Horrela ez bada, jarduteko gaitasuna estatutuen bidez edo sortze-egintzaren



Fundación Basque Team Fundazioa

bidez egiaztatuko da; betiere, haien jarduera erregulatzeko arauak agiri horietan egon beharko dira jasota. Eta pertsona juridiko horiek pertsona juridikoaren motaren arabera dagokien erregistro publikoan behar bezala erregistratuta egon beharko dira. Edo bestela, Sektore Publikoko Lizitazailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskadiko Autonomi Erkidegoko Lizitazailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, hala badagokie.

Enpresaburu atzerritarrak

Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetoakoak:

Dena delako prestazioa emateko gaituta daudela egiaztatzen duten enpresak aurkeztu ahal izango dira, haiek ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 67. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

Europar Batasunaz kanpoko enpresak

Europar Batasunekoak ez diren edo Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu ez duten estatuetoako pertsona fisiko edo juridikoek Espainiako Ekonomi eta Merkataritza Bulegoaren txostenaren bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresak jatorri duen estatuak bere aldetik enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela sektore publikoko enteekiko kontratazioetan, funtsean antzekoa den modu batean. Erregulazio harmonizatuko kontratuetan, Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetoako enpresek ez dute aurkeztu behar elkarrekikotasunari buruzko txostena.

Enpresen denbora baterako elkarteak

Enpresa bi edo gehiago denbora baterako elkaturik agertuz gero lizitazio batean, elkarteak osatzen duten enpresaburu bakoitzak bere nortasuna, gaitasuna eta ordezkariak egiaztatu beharko ditu, eta agiri pribatuan adieraziko dituzte partaideen izenak eta inguruabarrak, bakoitzak zenbateko partaidetza duen eta kontratuaren indarraldian ordezkariak izango duen pertsona edo entitatea ere (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 69. art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).



Fundación Basque Team Fundazioa

Pertsona fisikoak

Sektore Publikoko Lizitzaileen eta Enpresa sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta ez badago, lizitzaileari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiak tarteko:

- Identifikatzeko agiriak
- EJZn alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria

3. Kaudimena

3.1) Ekonomikoa, urteko negozio-bolumenak edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio-bolumenak –eratze-daten arabera edo enpresaburuaren jarduerak hasi ziren edo eskaintzak aurkeztu ziren dataren arabera, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik ekitaldi onenari dagokionak– lizitazio iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du. Gainera, eskatzen den urteko gutxienezko negozio-bolumena ez da kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako baino handiagoa izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, nola baitira obren, zerbitzuen edo horniduren izaerari lotutako arrisku bereziekin lotutakoak.

3.2) Teknikoa

Honako baldintza hauek betetzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa:

- Gutxienez, 5 urteko esperientzia profesionala goi mailako euskal kirol olinpikoari lotutako bideo, sustapen-bideo, erreportaje, dokumental edo edozein ikus-entzunezko produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan.
- Gutxienez, 5 urteko esperientzia profesionala goi mailako euskal emakumezko kirolari olinpikoei lotutako bideo, sustapen-bideo, erreportaje, dokumental edo edozein ikus-entzunezko produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan (kirola eta emakumea).
- Gutxienez, 5 urteko esperientzia profesionala goi mailako euskal kirolari paralinpikoei lotutako bideo, sustapen-bideo, erreportaje, dokumental edo edozein ikus-entzunezko produkturen produkzioan, grabazioan, edizioan eta postprodukzioan (goi mailako kirol egokitua).



Fundación Basque Team Fundazioa

- Materiala artxibatu eta biltegirateko gaitasuna, segurtasun-neurriak betez.

Baldintzak egiaztatzeko, egindako lan horien ziurtagiriak aurkeztuko dira, enpresako legezko ordezkariak sinatuta.

4. - Balio-iritzi baten mendeko irizpideak

Proposamenak honako agiri hauek izango ditu:

- Saiorako eta spoterako ideia eta tratamendu proposamena (egin beharreko lehenengo saioaren deskripzio-proiektua, azken produktuaren deskribapen teknikoa, eta eskuragarri dauden bitarteko teknikoak, proiektuaren helburuen memoria eta enpresaren curriculum laburra).
- Ikus-entzunezko sektorean goi mailako euskal kirol olinpikoari lotuta egindako lanak.
- Ikus-entzunezko sektorean emakumezkoen goi mailako euskal kirol olinpikoari lotuta egindako lanak.
- Ikus-entzunezko sektorean goi mailako euskal kirol paralinpikoari lotuta egindako lanak.

Aipatu lanak edo estekak erabilera libreko ontzien bidez bidali edo aurkeztuko dira, lizitazio honen atalean horretarako jarri direnak, honako webgune honetan: www.contratacion.euskadi.eus .

Hurrengo hauek hartuko dira aintzat: irudiaren kalitatea, audioaren kalitatea, lokuzioa eta erabilitako efektuak, balioen igorpena, edukia, originaltasuna, sormena, e.a.

Aipatutako lanak edo estekak bidali edo aurkeztu ezean, lizitaziotik kanpo geratuko da.

B.- 2. gutun-azala.- Balio-iritzi baten mendekoak EZ diren irizpideak

1.- **Eskaintza ekonomikoa**, I. eranskin gisa sartutako ereduari jarraituz, eta BEZ banakatuta.

Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituen eskaintza kalkulatzeko, aintzat hartuko da urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. art. aplikatzea, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araudi orokorra onartzen duena. Era berean, anormalki baxuak diren eskaintzetarako, aintzat hartuko da azaroaren 8ko Sektore Publikoen Kontratuaren 9/2017 Legearen 149. art.



Fundación Basque Team Fundazioa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

2.- Esperientzia gehigarria

Egindako berariazko lanen balorazioa, honakoak aipatuta: bezeroa, edukia eta betearazi den urtea:

- a) Goi mailako euskal kirol olinpikoaren eta paralinpikoaren sektoreari lotutako bideoak grabatzen eta editatzen egindako berariazko lanen zerrenda.
- b) Sektore publikoaren esparruan egindako ikus-entzunezko lanen zerrenda.

Proposamenen alderdi komunak:

- Proposamenak gaztelaniaz edo euskaraz idatziko dira.
- Ez dira onartuko hutsuneak, errakuntzak edo ezabaketak dituzten proposamenak, Fundación Basque Team Fundazioaren ustez, eskaintza aintzat hartzeko funtsezkoa dena ulertzen oztopatzeke moduan badaude.
- Lizitatzailerik bakoitzak proposamen bakarra aurkeztuko du. Ezingo du bestelakorik aurkeztu beste enpresa batzuekin denbora baterako elkartuta, banaka aurkeztu badu edo batean baino gehiagotan agertu bada. Arau horiek urratzeak hark aurkeztutako proposamen guztiak lizitazioan ez onartzea ekarriko du.

Aurkeztutako agiri guztiak jatorrizkoak izango dira, edo kopia kautotuak.

Notario-agiriak badira, Notarioaren Legeak eta Erregelamenduak legitimazio arloan ezarritakoei jarraituko diete.

Prozesu honetarako Fundazioak Erregistroan jatorrizkoen kopia doi gisa zigilatutako agiriak ere baliozkotzat emango dira.

5. Agiriak ziurtatzea eta kalifikatzea

Kontratazio-Mahaiko idazkariak karpetak jaso eta gero, Kontratazio-Mahaia batzartu egingo da garai eta modu egokian aurkeztutako agiriak aldeztu aurretik kalifikatzeko.

Mahaia, zuzentzekoak diren akatsak edo hutsuneak atzematen baditu aurkeztutako agirietan, ahoz eta idatziz jakinaraziko die interesatuei, eta,



Fundación Basque Team Fundazioa

gehienez, hiru egun balioduneko epea emango die lizitatzaleei, zuzenketak egin ditzaten. Horrela ez bada, lizitatzaleak kanpo geratuko dira behin betiko.

Akatsak zuzentzea eskatu zaien enpresa lizitatzaleek horretarako erabilitako agiriak Erregistroan aurkeztuko dituzte, ezinbestean.

Ondoren berriz elkartuko da Kontratazio-Mahaia eta dagokion erabakia hartuko du jaso diren zuzenketak direla-eta lizitatzaleak behin betiko onartzeari buruz.

10.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Honela osatuko da Kontratazio-Mahaia:

Presidentea: Elena Etxebarrieta, Fundazioko Komunikazio arduraduna.
Bokalak: Borja Osés, Fundazioko aholkulari juridikoa eta Rafa Mungia Etxabe, kirol-komunikazio arloko teknikari aditua.
Idazkaria: Maria Pérez, Fundazioko administrazio arduraduna.

11.- PROPOSAMEN EKONOMIKOA IREKITZEA

Kontratazio-Mahaiak jendaurrean irekiko ditu eskaintzen proposamen ekonomikoen gutun-azalak **2019ko azaroaren 6ko 10:00 orduetan** honako helbide edo estekaren bitartez:

https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_basqueteam_es.html .

Kontratazio-Mahaiak jendaurrean irekiko ditu eskaintzen proposamen teknikoaren gutun-azalak **2019ko azaroaren 5eko 16:00 orduetan** honako helbide edo estekaren bitartez:

https://www6.euskadi.net/lizitazioa/directo_basqueteam_es.html .

12.- PROPOSAMENEN BAREMAZIOA

Honelakoa izango da egindako proposamenen baremazioa:

A) Balio-irritzi baten mendean EZ dauden irizpideak:	55 puntu
A.1) Eskaintza ekonomikoa Eskaintza ekonomikorik onena: gehieneko puntuazioa Eskaintza ekonomikoen balorazioa egiteko, puntuaziorik handiena emango zaio zerbitzu bakoitzean eskaintzarik	25 puntu

<p>baxuena aurkezten duen enpresa lizitatzailerari. Eskaintza horri eskaintzarik baxuena deituko diogu.</p> <p>Lortutako puntuak kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da:</p> <p>Gehieneko puntuak (X) bider tarifa bakoitzaren eskaintzarik baxuenaren zatidura lizitatzaileraren eskaintzatik.</p> <p>Formularen emaitza negatiboa bada, 0 puntuko balorazioa emango zaio.</p>	
<p>A.2) Esperientzia gehigarria:</p> <p>Goi mailako euskal kirol olinpikoaren sektoreari lotutako euskarazko nahiz gaztelaniazko bideoak grabatzeko eta editatzeko egindako berariazko jarduketan zerrenda: 3 puntu jarduera-urte bakoitzeko (gehienez, 15 puntu)</p> <p>Kirol arloan egindako ikus-entzunezkoen zerrenda, gero euskal telebista pubñikoan emateko: 3 puntu jarduera-urte bakoitzeko (gehienez, 15 puntu)</p>	30 puntu
<p>B) Balio-iritziaren mendeko irizpideak:</p> <p>B1) Balioetsi egingo dira goi mailako euskal kirol olinpikoari lotutako ikus-entzunezko lanak: 10 puntu.</p> <p>B2) Balioetsi egingo dira goi mailako emakumezkoen euskal kirol olinpikoari lotutako ikus-entzunezko lanak: 10 puntu.</p> <p>B3) Balioetsi egingo dira goi mailako euskal kirol paralinpikoari lotutako ikus-entzunezko lanak: 10 puntu.</p> <p>B4) Saiorako eta spoterako ideia eta tratamendu proposamena (egin beharreko lehen saioaren deskripzio-proiektua, azken produktuaren deskribapen teknikoa, eta eskuragarri dauden bitarteko teknikoak, proiektuaren helburuen memoria. 15 puntu.</p>	45 puntu

13.- KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Kontratazio-Organok adjudikatuko du kontratua, Kontratazio-Mahaiak proposatuta. Kontratazio-organoak erabakia arrazoitu beharko du Mahaiaren proposamenarekin ados ez badago.

Enpresa, pertsona edo entitate baten eskaintza onuragarriena dela adierazteko Kontratazio-Mahaiaren erabakia, gehienez, 7 egun balioduneko epean jakinaraziko zaio plikak jendaurrean irekitzen direnetik zenbatzen hasita, eta hamar eguneko epean izaera juridikoari dagokion guztia egiaztatu beharko du, sektore publikoko kontratisten Erregistroan inskribatuta ez badago. Halaber, Ogasunarekikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatu beharko du, eta, edonola ere, behin betiko bermea jarri duela egiaztatu beharko



Fundación Basque Team Fundazioa

du, adjudikazioaren zenbatekoaren EHUNEKO BOST (% 5, BEZ kanpo), legeak aurreikusitako modua edozein dela ere (abala, Fundazioaren kontuan sartzea...). Era berean, epe berean egiaztatu beharko du eskuragarri dituela kontratuari atxikitzeko eskaintako bitarteko edo baliabideak.

Behin agiri horiek jasota, Kontratazio-Organok kontratua adjudikatzeko hartu duen erabakia idatziz jakinaraziko da, baita gainerako lizitatzaleei ere, aurrez emandako posta ziurtatura edo posta elektronikora bidalita.

Sektore Publikoen Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149.2 artikulua ezarritakoari jarraituz, eta adjudikatzeko hainbat irizpide erabili direla, baldintza-agirietan parametro objektibo batzuk jaso beharko dira eskaintza bat anormala dela jotzeko kasuak identifikatzeko. Bada, kontratazio honen xedearen izaera eta ezaugarriak kontuan hartuta, nabarmenki baxuegiak dira aurkeztu diren eskaintza guztien batezbesteko aritmetikoa baino % 20 baxuagoak direnak, eta altuena kanpo geratuko da.

14.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzeko agiria 7 egun balioduneko epean emango da, adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Kontratatari egotz dakizkiokeen kausak direla medio, kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ezin bada, Fundación Basque Team Fundazioak kontratua suntsiaraztea erabaki dezake. Aldez aurretik dagokion entzunaldi-izapidea eskainiko zaio interesatuari.

Kontratua pribatua izango da, eta jurisdikzio-ordena zibila eskuduna da kontratua interpretatzean edo aplikatzean sortzen diren gatazkak ebazteko.

15.- KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organok Fundazioko koordinatzailea izendatuko du kontratuaren arduradun, eta berari dagokio kontratua betearazten dela gainbegiratzea eta erabakiak hartzea nahiz jarraibideak ematea adostutako prestazioa zuzen ematen dela bermatzeko, betiere dituen ahalmenen baitan.

16.- ARAUDI ERREGULATZAILEA

Sinatzen den kontratua pribatua izango da eta honako hauek arautuko dute:

- Plegu honetako klausulak.



Fundación Basque Team Fundazioa

- Euskadiko Fundazioen Legeak ezarritakoa.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Kontratua, terminoak edozein direla ere, hari erantsitako agiriak, pleguak edo Fundación Basque Team Fundazioak adostutakoa betearazteko emandako era guztietako arauak ez ezagutzeak ez du salbuetsiko enpresaburua kontratua betetzeko betebeharretik.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da ebazteko eskuduna aldean artean sortzen diren gatazkak, botere adjudikatzailatzat hartzen diren erakundeen kontratu pribatuen ondoreei eta azkentzeari buruzkoak. Halaber, jurisdikzio-ordena zibil hau eskuduna izango da kontratu pribatuak prestatu eta adjudikatzeari eragiten dieten auzi lizkartsuen berri izateko. (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 27.2 art., Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora).

17.- ORDAINKETA-ARAU BIDEA

Adjudikazioduna izango den eskaintzaren prezioa ordaintzeko honela jokatuko da:

- Ehuneko berrogeita hamar (% 50) kontratua sinatzean ordainduko da.
- Gainerako ehuneko berrogeita hamar hileroko ordainduko da, hilabetea bukatuta, hamar ordainketa zatikatu eta berdinetan, behin saio bakoitza eta spota aurkeztuta eta Basque Team-ek onartuta.

Adjudikaziodunak eskubidea izango du hitzartutako prezioa jasotzeko, kontratuan ezarritako baldintzetan, benetan egindako eta Fundazioak formalki jasotako lanak emateagatik.

18.- AZPIKONTRATAZIOA

Kontratu honen xede diren jarduerak zuzenean egingo ditu enpresa adjudikaziodunak. Salbuespenez, Fundación Basque Team Fundazioak baimena eman dezake adjudikazioduna ez den enpresa batek kontratuaren xedeari lotutako langileak edo lanak azpikontratatzeko, SPKLren 215. eta 2016. artikuluei jarraituz. Berriaz onartu beharko da. Ezinbesteko baldintza da



Fundación Basque Team Fundazioa

enpresa azpikontratatistak egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Azpikontrataturako enpresak arlo guztietan duen jokaeraren erantzulea enpresa adjudikazioduna da Fundación Basque Team Fundazioaren aurrean: zerbitzuaren kalitatea, entregatzeko epea, bukatzeko epea, datuak erabiltzeari eta informazioari buruzko obligazioak, eta azpikontrataturako enpresak gizarte-nahiz zerga-obligazioak betetzea.

19.- EGINDAKO LANEN JABETZA

Atal guztietan egiten diren lanak Fundación Basque Team Fundazioarenak dira. Adjudikaziodunak ezingo du berarentzat erabili edo hirugarrenei eman kontratatutako lanen daturik, ezta lanen edukia argitaratu ere, osorik edo partzialki, Fundación Basque Team Fundazioaren baimen idatzirik gabe. Edonola ere, adjudikazioduna izango da obligazio hau ez betetzearen ondorioz sor litezkeen kalte-ordainen erantzulea.

20.- KLAUSULA BEREZIAK

Bereziki betearaztekoa da enpresa adjudikaziodunak ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak betetzea, zerbitzua ematean erabiliko dituen ekipo eta kontsumigarriei dagokienez. Hori egiaztatzeko, enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko du, adierazten duena zerbitzua betearazteko erabiliko diren ekipo eta bitartekoek bete edo errespetatu egiten dituztela ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak.

21.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 319. artikulua araberan, Administrazio publikoen kategoriakoak ez diren botere adjudikatzaileekin egindako kontratuen ondoreak eta ezeztatzea zuzenbide pribatuko arauak gidatuko dituzte; SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritako kontratua suntsiarazteko arrazoen kalterik gabe.

22.- LANEN HASIERA

Lanak hasteko data ofiziala kontratua sinatzen den hurrengo eguna izango da.



Fundación Basque Team Fundazioa

I. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA

.....jn./and., adinez nagusia,
.....n bizi dena, eta NAN zk....., bere izenean edo
..... enpresa ordezkatzuz, helbide soziala
....., eta IFK zk., lehiaketa honetan parte
hartzen duen honek:

“FUNDACIÓN BASQUE TEAM FUNDAZIOAREN IKUS-ENTZUNEZKO ZERBITZUAK
KONTRATATZEA”

Fundación Basque Team Fundazioak deialdia eginda, honakoa adierazten du:

Konpromisoa hartzen du lehiaketako prestazioa emateko, eskatutako baldintzak betez,
honako prezio honetan:

Zerga-oinarria.....€
BEZ % 21€
Guztira€

.....-n,-(e)ko,-aren-(e)(a)n

Sin.:



Fundación Basque Team Fundazioa

II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jn./and., NAN zk.,ren izenean, IFK zk., helbide soziala, den aldetik, interesatuta dagoela Fundación Basque Team Fundazioak deitutako adjudikazio prozeduran.

Honako honen bidez ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA egiten dut azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen, 140.1 c) artikulua ondoeetarako (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora):

- Ni ordezkatzeko nauenak ez duela sektore publikoarekin kontratuak egiteko debekurik, SPKLren 71.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.
- Egunean ditudala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek hala ezarrita. Konpromisoa hartzen dut betekizun horren ziurtagiria aurkezteko kontratua formalizatu aurretik, kontratazioa arautzen duten Baldintza Orokorren Pleguarekin bat, nire ordezkaria adjudikaziodun izanez gero.
- Bete egingo ditudala, adjudikaziodun izanez gero, ingurumen-kalitateari buruzko xedapenak, zerbitzua betearazteko erabiliko diren ekipo eta bitartekoei dagokienez.

.....-n,-(e)ko,-aren-(e)(a)n

Sin.:

III. ERANSKINA

Pertsona juridikoen erantzukizunpeko adierazpena

(.....), IFZ (.....),
 (.....)ko (ahalordedun, zuzendari orokor, administratzaile
 bakarra) den aldetik, IFZ (.....), eta jakinarazpenak bidaltzeko helbidea
 (.....), zk. (.....), (PK.....), (Herria.....), kapitalak
 zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko indarrean dagoen araudiak
 ezarritakoa betetzeko, honakoa

ZIURTATZEN DU

1 – Egiazkoak direla 10/2010 Legearen Erregelamenduaren 4. artikuluan ezarritako
 identifikazio formala egiteko aurkeztu diren agirietako datuak. Badago indarrean
 aurkeztutako informazio guztia:

BAI EZ

2 – Ordezkatzen duen sozietatearen jabetza edo kontrola egitura hauxe dela:

<input type="checkbox"/>	Ez dago bazkiderik / akziodunik % 25etik gorako partaidetza duenik.
<input type="checkbox"/>	Hauxe da % 25etik gorako partaidetza duten bazkideen / akziodunen zerrenda:

BAZKIDEAREN EDO AKZIODUNAREN IZEN OSOA	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA	PARTAIDETZA (%)

PF: pertsona fisikoa / PJ: pertsona juridikoa

3 – Azken finean, kapitalaren % 25etik gorako portzentajea edo ordezkatzen duan
 pertsona juridikoaren boto-eskubideak dituzten edo kontrolatzen dituzten, zuzenean
 edo zeharka, pertsona fisikoak, edo estatutu-akordio edo xedapenen bidez edo beste
 bitarteko batzuen bidez pertsona juridikoaren kudeaketa, zuzenean edo zeharka,
 kontrolatzen dutenak honako hauek direla:

<input type="checkbox"/>	Ez dago pertsona fisikorik kapitalaren % 25etik gorako portzentajea edo ordezkatzen duan pertsona juridikoaren boto-eskubideak dituenik edo kontrolatzen dituztenik, zuzenean edo zeharka, edo beste bitarteko batzuen bidez enpresa horren kudeaketa, zuzenean edo zeharka, kontrolatzen duenik.
--------------------------	---

Hurrengo hauek:



Fundación Basque Team Fundazioa

TITULAR ERREALAREN IZEN OSOA	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA	KONTROLA (%)

4 – Administratzaile gisa jarduten dutela Patronatuko kideek (fundazioetarako) edo zuzendaritza-batzordeko kideek (elkarteetarako):

ADMINISTRATZAILEAREN IZENA	PF / PJ	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA

Lehen aipatutako administratzaile, patronatuko kide edo zuzendaritza-batzordeko kideren bat pertsona juridikoa izanez gero, adierazi pertsona juridikoaren administratzaileak izendatutako pertsona fisikoaren izena:

SOZIJETATEA	ADMINISTRATZAILEAREN IZENA	IDENTIFIKAZIOA	NAZIONALITATEA

Eta horrela jasota gera dadin, eta dagozkion ondoreetarako, honakoa egiten dut.

.....-n,-(e)ko,-aren-(e)(a)n